



HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ZENTROAK JOSTAILUZ ETA MOTRIZITATE-EKIPAMENDUZ HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA

Lizitazio hau arautzen duten baldintza administratibo zehatzen eta baldintza teknikoaren agiriak honako helbide honetan daude eskuragarri: <http://www.haurreskolak.eus/>

I. ESPARRU-AKORDIOAREN XEDAPEN OROKORRAK

1. - HELBURUA

1. Haurreskolak Partzuergoko zentroei jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak hornituko dizkieten enpresak aukeratzea. Horretarako, hautaketa-prozesuak berariaz aztertuko ditu enpresa lizitatzailen ezaugarri orokorrak eta produktuak modu azkar eta eraginkorren banatzeko gaitasuna, eta, horrez gain, eskainitako produktuen kalitateari eta ingurumen-alderdiei buruzko balioak kontuan hartuko ditu, oro har.
2. Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak hornitzeko beharrezko diren jostailu eta mugimendu-elementuak edukitzeko beharrezkoak betetzea. Horretarako, esparru-akordio bat eduki nahi da, aipatu elementuen hornidura kontratatzeke espedienteen eraginkortasuna eta azkartasuna sustatze aldera.
3. Haurreskolak Partzuergoko zentroak jostailu eta motrizitate-ekipamenduz hornitzeko Haurreskolak Partzuergoak esleitu beharreko eratorritako kontratuek bete behar dituzten baldintzak esparru-akordio baten bidez zehaztea.
4. Esparru-akordio horretan berariaz zehaztuko dira enpresak, eman beharreko produktuak eta horien unitate-prezioak, gehieneko izaerarekin, bai eta produktuok hornitzeko beste baldintza orokor batzuk ere, besteak beste, esparru-akordio honen ondorioz egiten diren kontratuek bete beharko dituzten oinarriko baldintzak edo epeak.
5. Hautaketa honen ondoren adjudikatzen diren kontratuen bidez, Haurreskolak Partzuergoak material didaktikoaren kalitatea bermatu nahi du Haurreskolak Partzuergoko zentroetan.

2.- XEDEA

Kontratuaren xedea Haurreskolak Partzuergoko zentroei jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak hornitzea da, eta, horretarako, Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako eskakizunak beteko dira.

Produktuak jardueraren arabera sailkatzeko 2008ko sailkapen estatistikoaren kodea honako hau da: **32.4** (Jolasak eta jostailuak) eta **32.30.15** (Kiroletarako edo aire zabaleko jolasetarako, igerilekuetarako eta bestelakoetarako materiala eta produktuak).

Produktuen hiztegi erkidearen arabera, hornidura-kodea honako hau da: **37520000-9** (Jolasak eta jostailuak) eta **37450000-7** (Zelaian eta kantxan praktikatzeko diren kirolekarako ekipoak).



Kontratu hau bi sortatan banatuko da:

- 1. sorta: Jostailuak
- 2. sorta: Motrizitate-ekipamendua

Halaber, sorta horiek azpisortatan banatzen dira, enpresa txiki eta ertainek esparru-akordio honetan parte hartzeko erraztasunak izan ditzaten. Sorta bakoitzerako azpisortak honako hauek dira:

- 1. sorta: Jostailuak
 - o 1.1. azpisorta: Zentzumenak estimulatzeke jolasak
 - o 1.2. azpisorta: Ahokatzeko jostailuak eta puzzleak
 - o 1.3. azpisorta: Eraikuntza-jolasak
 - o 1.4. azpisorta: Motrizitate fina
 - o 1.5. azpisorta: Garapen musikala
 - o 1.6. azpisorta: Jolas sinbolikoa
 - o 1.7. azpisorta: Mugimendu-jolasak
 - o 1.8. azpisorta: Jolas-liburuak
- 2. sorta: Motrizitate-ekipamendua
 - o 2.1. azpisorta: Tatami koltxoneta 0-1 urteko gela
 - o 2.2. azpisorta: Tatami koltxoneta 1-2 urteko gela
 - o 2.3. azpisorta: Psikomotrizitate-koltxoneta
 - o 2.4. azpisorta: Apar-gomazko aulkiak
 - o 2.5. azpisorta: Psikomotrizitateko elementu konbinagarria
 - o 2.6. azpisorta: Aereoak eta txirristak
 - o 2.7. azpisorta: Hesi finko eta mugikorak
 - o 2.8. azpisorta: Horma-barrak

3.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Kontratu-dokumentuak dira honako hauek:

- a) Baldintza administratibo zehatzen agiria.
- b) Baldintza tekniko zehatzen agiria.
- c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

4.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua administratiboa da, eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan beharko da.

Lehenengo-lehenengo, honako hauen araberakoa:

- a) Baldintza administratibo zehatzen agiriko klausulak.
- b) Baldintza tekniko zehatzen agiriko klausulak.
- c) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena (SPKLTB).
- d) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa.
- e) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onetsi zuena, SPKLTBn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- f) Kontratu-dokumentuak.

Bai eta hauexek ere, kontratua ukitzen duten heinean:

- a) 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa.



- b) 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoi buruzkoa.
- c) Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketan izapidetze telematikoi buruzkoa.
- d) Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, esparru horretan aplikatzekoa bada.
- e) Modu osagarrian, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta administrazio-zuzenbidearen arloko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako dokumentuak edo administrazioak emandako jarraibide, baldintza-agiri edo era guztietako arauak, eta horiek guztiak hitzartutakoa exekutatzeko aplikatu beharrekoak badira, guztiak betetzeko betebeharra izaten jarraituko du enpresariak, hau da, ez da betebeharrak horretatik salbuetsita egongo.

5. - KONTRATAZIO-ORGANOA

Esparru-akordioaren kontratazio-organoa Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea da.

Haurreskolak Partzuergoaren datuak honako hauek dira: helbidea: Otaola Hiribidea 29, Jaizkibel eraikina, 1. solairua (20600 Eibar); telefono-zenbakia: 943821750; faxa: 943120737; eta helbide elektronikoa: haurreskolak@haurreskolak.eus

Haurreskolak Partzuergoko kontratatzailearen profila Partzuergoaren webgunean ikus daiteke:

<http://www.haurreskolak.eus/>

6. - ZENBATETSITAKO BALIOA

SPKLTBren 88. artikuluar jarraikiz, baldintza-agiri honi buruzko prezio edo balio ekonomiko guztiak dagokion BEZik gabe jaso dira, partida hori independentea dela ulertuta.

Esparru-akordioan zenbatetsitako balioa, SPKLTBren 88. artikuluan xedatutakoaren arabera, esparru-akordioaren iraupen osoan zehar aurreikusitako kontratu guztiak kontuan hartuta kalkulatu da. Horrenbestez, bederatziehun eta hirurogei mila euroko (960.000€) balioa zenbatetsi da, honako urteroko hauetan banatuta:

	2018	2019	2020	2021
1. SORTA: JOSTAILUAK	87.000 €	87.000 €	87.000 €	87.000 €
1.1. azpisorta: Zentzumenak estimulatuzko jolasak	20.000 €	20.000 €	20.000 €	20.000 €
1.2. azpisorta: Ahokatzeko jostailuak eta puzzleak	10.000 €	10.000 €	10.000 €	10.000 €
1.3. azpisorta: Eraikuntza-jolasak	8.000 €	8.000 €	8.000 €	8.000 €
1.4. azpisorta: Motrizitate fina	10.000 €	10.000 €	10.000 €	10.000 €
1.5. azpisorta: Garapen musikala	8.000 €	8.000 €	8.000 €	8.000 €
1.6. azpisorta: Jolas sinbolikoa	15.000 €	15.000 €	15.000 €	15.000 €
1.7. azpisorta: Mugimendu-jolasak	10.000 €	10.000 €	10.000 €	10.000 €
1.8. azpisorta: Jolas-liburuak	6.000 €	6.000 €	6.000 €	6.000 €



2. SORTA: MOTRIZITATE-EKIPAMENDUAK	153.000 €	153.000 €	153.000 €	153.000 €
2.1. azpisorta: Tatami koltxoneta 0-1 urteko gela	2.000 €	2.000 €	2.000 €	2.000 €
2.2. azpisorta: Tatami koltxoneta 1-2 urteko gela	2.500 €	2.500 €	2.500 €	2.500 €
2.3. azpisorta: Psikomotrizitate-koltxoneta	2.000 €	2.000 €	2.000 €	2.000 €
2.4. azpisorta: Apar-gomazko aulkiak	5.000 €	5.000 €	5.000 €	5.000 €
2.5. azpisorta: Psikomotrizitateko elementu konbinagarria	80.000 €	80.000 €	80.000 €	80.000 €
2.6. azpisorta: Aereoak eta txirristak	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
2.7. azpisorta: Hesi finko eta mugikorak	35.000 €	35.000 €	35.000 €	35.000 €
2.8. azpisorta: Horma-barrak	1.500 €	1.500 €	1.500 €	1.500 €

Haurreskolak Partzuergoak, hala ere, ez du ondasun-kopuru jakin bat erosteko betebeharririk hartuko, bere beharrezan araberak jardungo baitu.

Esparru-akordio honetan oinarritutako hautaketa-prozeduraren ondoren egiten diren kontratuek, berariaz zehaztuko dituzte eskuratuko diren ondasunak, horien kopurua, entrega egiteko tokia eta epea, eta gainerako baldintza zehatzak. Edonola ere, bete egin beharko dituzte baldintza administratibo zehatzen agiri honetan jasotzen diren baldintza teknikoaren agiria eta esparru-akordioaren baldintza orokorrak.

Esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean egiten diren kontratuetarako **gehieneko unitate-prezioak** (BEZ kanpo) honako hauek izango dira:

PRODUKTUA	ZENBATEKOA (€)
Txintxirrinak, haginkariak...	24
Panpinak	39
Peluxeak	37
Arrastatzeko jostailuak	31
Bultzatzeko jostailuak	37
Ibilgailuak	48
Animaliak	69
Pilotak	26
Argi-jolasak	390
Manipulazio-mahaiak	810
Ahokatzeko jostailuak eta puzzleak	41
Eraikuntza-jolasak	75
Motrizitate fina	55
Jarduera - panelak	150
Musika-tresnak	19
Jolas sinbolikoa: sukaldea, margotzeko astoa, garajeak/zirkuitoak eta modulu elementuak	200
Panpinentzako osagarriak	50
Jolas sinbolikorako osagarriak	33

Tipi-tapak, motorrak, ibiltzeko karroak eta trizikloak	83
Jolas-liburuak	28
Tatami 0-1	158
Tatami 1-2	166
Psikomotrizitate-koltxoneta	351
Apar-gomazko aulkiak	195
Psikomotrizitateko elementu konbinagarria	1.100
Aereoak eta txirristak	2.500
Hesiak	2.038
Horma-barrak	263

Adierazitako gehieneko prezioak baino unitate-prezio altuagoak dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Lizitatuzaileak eskaintako unitate-prezioak ezingo dute goranzko berrikusketarik jasan.

7. – ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA: Bai.

8. – EPEA

8.1.- Esparru-akordio hau lau urtez egongo da indarrean, indarrean sartzen den datatik aurrera. Hau kontratuan zehaztuko da.

8.2.- Materiala entregatzeko gehieneko epea ezin izango da 30 egun naturaletik gorakoa izan.

9. – LUZAPENA

Ez da aurreikusten.

II.- ESPARRU-AKORDIOKO ADJUDIKAZIODUNAK HAUTATZEKO PROZEDURA

10.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Esparru-akordioa prozedura IREKI bidez adjudikatuko da, eta, prozedura horretan, hainbat balorazio-irizpide hartuko dira kontuan, SPKLTBren 138. eta 150. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Halaber, espedientearen izapidetzea arrunta izango da.

Adjudikazio-prozeduraren bidez aukeratuko dira kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko betekizunak, baldintza teknikoaren agiria eta gehieneko prezio eta epeak betetzen dituzten operadore ekonomiko edo enpresak, kopuruan mugarik jarri gabe. Hartara, prezioak eta epeak gehienekotzat joko dira, eta produktuen ezaugarri teknikoak, akordio honetako kideetako bakoitzak egindako eskaintzaren arabera, gutxienekotzat joko dira.

Lizitazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean iragarriko da, SPKLTBren 142. artikuluan ezarri bezala, baita kontratatzailearen profileen ere (<http://www.haurreskolak.eus/>).



11. - KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaiak laguntza ematen dio kontratazio-organoari esparru-akordioa adjudikatzean. Bada, kontratazio-mahaiko kide izango dira Presidentea, arauz zehazten diren Kideak eta Idazkari bat, guztiak ere Zuzendaritza Batzordeak izendatuta.

Kontratazio-mahaia modu baliozkoan eratzeko, nahitaez egon behar du bertan kideen gehiengo absolutuak, eta haien artean ezinbestez egongo dira Presidentea, Idazkaria, eta aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna betetzeko eta organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrola egiteko eginkizuna duten bi (2) Kideak.

12. - ESPEDIENTE-ZENBAKIA

002/17 da espediente-zenbakia.

13.- ARAU OROKORRAK

13.1.- Adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal dute **pertsona natural edo juridiko espainiar nahiz atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeke debekurik ez badute eta baldintza-agiri honetan ezartzen diren kaudimen-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute.**

Haurreskolak Partzuergoak esparru-akordioak adostu ditzake **enpresari-elkarteekin**, baldin eta aldi baterako horretarako eratzen badira. Ez da beharrezkoa izango enpresa eskritura publikoan formalizatzea, harik eta esparru-akordioa behin betiko adjudikatu arte. Enpresari horiek kontratazio-organoaren aurrean solidarioki behartuta geratzen dira, eta elkarteren ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu behar dute, esparru-akordio honen ondoriozko betebeharrak guztiak betetzeko eta eskubideak baliatzeko botere aski duena. Nolanahi ere, enpresek zenbateko esanguratsuak kobratu eta ordaintzeko botere mankomunatuak eman ahal izango dituzte.

13.2.- Lizitatuzaile bakoitzak **proposamen bakarra aurkeztu dezake**, dela bakarrik, dela aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan kide izanik. Bakarrik parte hartzen dutenak ezin dira aurkeztu aldi baterako enpresa-elkarte batean beste batzuekin batera. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko arauak hautsi dituztenek aurkeztutako eskaintzarik.

13.3.- Eskaintza aurkeztean **bete-bete onartzen dira baldintza-agiri honetako klausulak**, eta, halaber, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta prestazioa kontratatzeke eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen direla egiaztatzen da, erantzukizunpeko deklarazioan.

14.- ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Ekonomikoki onuragarrienak diren eskaintzak kontratu bakoitzean zehaztuko dira, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

a) Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak: 60 puntu

Prezioa: 40 puntu

Entregatzeko epea: 15 puntu

Bermea: 5 puntu

Honako formula hau aplikatuko da:



1) Eskaintza ekonomikoa (Haztapena: 40 puntu)

Eskaintza ekonomikoak baloratzeko, honako formula hau aplikatuko da:

- Sorta eta azpisorta bakoitzak gehieneko puntuazio bat du finkatuta. Horrekin baloratuko da azpisorta edo talde (azpisortak talde bat baino gehiago badu) horretako eskaintzarik baxuena.
- Gainerakoak horren arabera baloratuko dira, proportzionalki:

$$\text{Lizitatzailleak lortutako puntuazioa} = \frac{\text{Ezarritako gehienko puntuazioa (beheko taula)} \times \text{Eskaintza merkeena}}{\text{Aztertu beharreko eskaintza}}$$

Sorta bakoitzean gehienez lortu ahalko den puntuazio 20koa izango da, 2,5 puntu azpisorta bakoitzeko. Zehazki, ondorengo taulan azaltzen den moduan banatzen da puntuazioa (gehienez):

1.SORTA: JOSTAILUAK	20 puntu
1.1 azpisorta: Zentzumenak estimulatzeko jolasak	2,5 puntu (honela banatuta):
a) Txintxirrinak, haginkariak...	0,25 puntu
b) Panpinak	0,25 puntu
c) Pelutxeak	0,25 puntu
d) Arrastatzeko jostailuak	0,25 puntu
e) Bultzatzeko jostailuak	0,25 puntu
f) Ibilgailuak	0,25 puntu
g) Animaliak	0,25 puntu
h) Pilotak	0,25 puntu
i) Argi-jolasak	0,25 puntu
j) Manipulazio-mahaiak	0,25 puntu
1.2 azpisorta: Ahokatzeko jostailuak eta puzzleak	2,5 puntu
1.3 azpisorta: Eraikuntza-jolasak	2,5 puntu
1.4 azpisorta: Motrizitate leuna	2,5 puntu (honela banatuta):
a) Motrizitate leuna	1,25 puntu
b) Jarduera panelak	1,25 puntu
1.5 azpisorta: Garapen musikala	2,5 puntu
1.6 azpisorta: Jolas sinbolikoa	2,5 puntu (honela banatuta):
a) Jolas sinbolikoa	1 puntu
b) Panpinentzako osagarriak	0,75 puntu
c) Jolas sinbolikorako osagarriak	0,75 puntu
1.7 azpisorta: Mugimendu-jolasak	2,5 puntu
1.8 azpisorta: Jolas-liburuak	2,5 puntu
2 SORTA: MOTRIZITATE-EKIPAMENDUA	20 puntu
2.1 azpisorta: Tatami koltxoneta 0-1 urteko gela	2,5 puntu
2.2 azpisorta: Tatami koltxoneta 1-2 urteko gela	2,5 puntu
2.3 azpisorta: Psikomotrizitate koltxoneta	2,5 puntu
2.4 azpisorta: Apar-gomazko aulkiak	2,5 puntu
2.5 azpisorta: Psikomotrizitate elementu konbinagarria	2,5 puntu



2.6 azpisorta: Aereoak eta txirristak	2,5 puntu
2.7 azpisorta: Hesi finko eta mugikorak	2,5 puntu
2.8 azpisorta: Horma-barrak	2,5 puntu

2) Entregatzeko epea (Haztapena: 15 puntu)

- Entregatzeko egun natural gutxien eskaintzen dituenari 15 puntu emango zaizkio. Lizitatzailleak eskaintako entregatzeko epe guztien batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da eskaintzaren entregatze epea finkatzeko.
- Gainerakoak horren arabera baloratuko dira, proportzionalki:

$$\text{Lizitatzailleak lortutako puntuazioa} = \frac{15 \times \text{Eskaintako entregatze epe txikietan egun osotan}}{\text{Lizitatzailleak eskaintako epea egun osotan}}$$

3) Berme-epea (Haztapena: 5 puntu)

- Berme- eperik altuenari (hilabetetan) 5 puntu emango zaizkio. Lizitatzailleak eskaintako berme-epe guztien batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da eskaintzaren berme-epea finkatzeko.
- Gainerakoak horren arabera baloratuko dira, proportzionalki:

$$\text{Lizitatzailleak lortutako puntuazioa} = \frac{5 \times \text{Lizitatzailleak eskaintako epe hilabetetan}}{\text{Eskaintako epe luzeena hilabetetan}}$$

Balio anormal edo neurrigabeak: SPKLTBren 152. artikulua eta HAKLEOren 85. eta 86. artikulua aplikatuko dira.

b) Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: 40 puntu

Balorazioa	Puntuazioa
Erosketa-sistema	12
Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-proiektuko 14 printzipioak betetzen dituzten produktuaren ezaugarriak edo funtzionaltasunarekin lotutako prestazioak	8
Kalitateari buruzko alderdiak	8
Baldintza teknikoaren agiriaren ezarritako zehaztapenetan eskatzen diren gutxienekoak baino altuagoak diren produktuen ezaugarri edo prestazioak	7
Zerbitzuari buruzko alderdiak	5

1.- Erosketa-sistema: 12 puntu.

Gehenez ere 12 puntu emango dira, esparru-akordio hau exekutatzeko, erositakoa kudeatzea erraztuko duen atari edo katalogo elektronikoko baten eskaintza. Zehazki, honako ezaugarri hauek betetzen ote diren baloratuko da:

- Atari edo katalogo elektronikoko esparru-akordio honen parte diren artikulua edo produktuak identifikatzeko aukera: 3 puntu.
- Produktuak eta horiei buruzko datuak, baldintza teknikoak, prezioak eta adierazpen grafikoak bilatzeko aukera ematen duen sistema informatikoa: 2 puntu.



- Erabiltzaileek alta emateko sistema, kudeaketa-adierazleak, erabiltzaileen profil desberdinak ezartzeko aukera, informatika-sistema propioekiko lotura (Haurreskolak Partzuergoren webgunetik lotura baten bidez atari edo katalogo elektronikora sartzeko aukera), atarian sortutako datuak babesteko bermeak eta eskarrietan sortutako informazioa ikusteko aukera: 3 puntu.
- Aurrekontuak eskatzeko aukera: 2 puntu.
- Eskaria behin-behinen gordetzeko eta berretsi aurretik berreskuratu eta inprimatzeko aukera: 2 puntu.

2.- Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-proiektuko 14 printzipioak betetzen dituzten produktuaren ezaugarriak edo funtzionaltasunarekin lotutako prestazioak: 8 puntu.

Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-proiektuko 14 printzipioak betetzen dituzten funtzionaltasun-alderdiei gehienez ere 8 puntu emango zaizkie (**VIII. eranskina**). Alderdiok baloratzeko, profesional talde batek aztertuko du produktuen funtzionaltasuna, bai eta hezkuntza-proiektua zein neurritan betetzen duten ere.

3.- Kalitatea: 8 puntu.

Gehienez ere 8 puntu emango zaizkie produktuen kalitatea eta segurtasuna bermatzen duten ziurtagiri edo markei, hau da, hirugarren entitateek produktua eta haren ekoizpen-prozesua etengabe kontrolatzeko egiten dituzten jardunei.

- Kalitate-ziurtagiriak (ISO-9.001; ISO-14.001; OSHAS).
- kalitate-adierazleak eta -politika,
- trazabilitatea,
- ez-adostasunen tratamendua,
- produktuaren ziurtagiriak.

4.- Baldintza teknikoan agirian ezarritako zehaztapenetan eskatzen diren gutxienekoak baino altuagoak diren produktuen ezaugarri edo prestazioak: 7 puntu.

Baldintza teknikoan agirian eskatzen direnak baino prestazio edo ezaugarri altuagoak eskaintzen dituzten alderdiei gehienez ere 7 puntu emango zaizkie.

- Materialetan eskatutako gutxienekoak baino altuagoak diren sailkapenak (toxikotasuna, sukoitasuna, beirak...): 3 puntu.
- Produktuan eskatutako gutxienekoak baino altuagoak diren sailkapenak (segurtasuneko entsegu-mailak, egonkortasuna...): 2 puntu.
- Materialen kalitate altuagoa: 2 puntu.

5.- Zerbitzuari buruzko alderdiak: 5 puntu.

Gehienez ere 5 puntu emango zaizkie egitura logistikoari buruzko alderdiei dagokionez, zerbitzu egokia bermatzen dutenei:

Giza taldea (puntu 1): Enpresa lizitatzailerik esparru-akordio hau exekutatzeko eskaintzen duen arreta pertsonalizatua baloratuko da.

Ondorio horietarako, zehazki baloratuko da esparru-akordio hau exekutatzeko ardura duten langileek jakin badakitela Haurreskolak Partzuergoan jostailuak eta motrizitate-ekipamendua erosteko eskumena duten erosketa-unitateek nola funtzionatzen duten (unitate nagusiak eta Partzuergoko zentro desberdinek). Baita langileak daudela eskura



jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak erosteko eskumena duten erosketa-unitateen beharrizan guztiak ase eta ebazteko, kontsulta horiek enpresa lizitatzailerako beste langile batzuei bideratu behar izanik gabe.

Banaketa-logistika (2 puntu): Enpresa lizitatzailerak produktuak banatzeko egiten duen proposamena baloratuko da, kontuan hartuta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzak, entregak egiteko eskakizunak, eta baldintza teknikoen agirian jasotzen diren gainerako betekizunak.

Atal honetan, banaketa kontratazio bakoitzaren eskakizunen eta jostailuak eta motrizitate-ekipamendua erosteko eskumena duten erosketa-unitateen beharrizanen arabera pertsonalizatzeko aukera baloratuko da, bai eta fabrikatzaileen bilgarri estandarrez bestelakoak dituzten produktuak banatzeko aukera ere, jostailuak eta motrizitate-ekipamendua erosteko eskumena duten erosketa-unitateek hala eskatzen badute eta beharrezkotzat jotzen badute.

Garraio-logistika (puntu 1): Enpresa lizitatzailerak esparru-akordio hau exekutatzeko eskaintzen dituen garraio bide propioen nahiz kanpoko proposamena baloratuko da.

Atal honen barruan, berariaz baloratuko da garraioa beti ekipo berdina egitea, jostailuak eta motrizitate-ekipamendua erosteko eskumena duten erosketa-unitateen funtzionamenduak ezagut ditzan. Halaber, enpresak materiala garraiatzeko duen gaitasuna ere baloratuko da, jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak erosteko eskumena duten erosketa-unitateen beharrizanak kontuan hartuta.

- Nolanahi ere, enpresek zehaztu egin beharko dute ea garraioa bitarteko propioekin edo kanpokoekin egingo den eta zein neurritan.

Biltegien kokapena (puntu 1): Jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak hornitzea premiazko beharrezko izan daiteke. Hori dela eta, hornidurak jarraian eta azkar egiteko aukera izan daiteke esparru-akordio honetako lehentasunetako bat. Horrenbestez, eta hornidurak ahalik eta ondoen garatzen direla bermatzeko asmoz, honako hauek bereziki baloratuko dira:

- Beren biltegiak Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.
- Eskatutako produktu guztiak hornitzeko beste fabrikatzaile/hornitzaile batzuk behar izanez gero, beren biltegietan stock nahikoa edukitzeko aukera.

Aurreko apartatuetan puntuazioa lortzeko ezinbestekoa da enpresa lizitatzailerak memoria bat aurkeztea, baloratuko diren alderdi guztiak azaltzen dituen. Horrez gain, organo eskudunek igorritako egiaztagiria erantsi beharko dituzte.

15.- BALDINTZA-AGIRIAK ETA INFORMAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

15.1.- Adjudikazio-prozedura hau arautzen duten **Baldintza Administratibo Zehatzen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria** kontratatzailearen profilean ikus daitezke: <http://www.haurreskolak.eus>

Baldintza-agiri horiekin lotutako kontsultarik egin nahi izanez gero, interesdunek honako helbide elektronikoa haurreskolak jo ahal izango dute:

- **Baldintza Teknikoen Agiriari eta Baldintza Administratibo Zehatzen Agiriari** buruzko kontsultak
 - Helbide elektronikoa: ekonomia@haurreskolak.eus
 - Telefono-zenbakia: 943 821 959

Interesdunek egiten dituzten kontsulten erantzunak Haurreskolak Partzuergoaren ustez lagungarri izan badaitezke gainerako interesdunentzat beren eskaintza egiteko, kontratatzaileraren profilean argitaratuko dira, kontsulta horiek jaso eta erantzun ahala.



Eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino 6 egun lehenagora arte eskatu ahalko da zalantzak argitzeko informazioa.

16.- ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA, TOKIA ETA BALDINTZA FORMALAK.

16.1.- BALDINTZA FORMALAK

Lizitazioan parte hartzeko, enpresek **hiru (3) gutun-azal** aurkeztuko dituzte, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa.**
- B gutun-azala: Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak.**
- C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak.**

Gutun-azalak **ITXITA** aurkeztuko dira, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- ✓ Gutun-azalaren KANPOALDEAN argi eta garbi adierazi behar dira:
 - Zein lizitaziora aurkeztu diren, espediente-zenbakia **-002/17-** adierazita, eta zein gutun-azal den (A, B edo C).
 - Lizitatuzailearen izen-abizenak, pertsona fisikoa bada, edo sozietatearen izena, pertsona juridikoa bada.
 - Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, gainera, haren ordezkari-lanetan ari den ordezkariaren (edo ordezkarien) izen-abizenak adierazi beharko dira.
 - IFZ, helbidea, telefono-zenbakia eta harremanetarako helbide elektronikoa.
 - Lizitatuzailearen edo hura ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura.
- ✓ Gutun-azalaren BARRUALDEAN gutun-azal bakoitzerako baldintza-agiri honetan zehaztu den dokumentazioa soil-soilik sartuko da.

Halaber, gutun-azal bakoitzaren barruan, orri independente batean, bere edukia zein den adieraziko da, zenbaki bidez. Gutun-azalen barruan, ahal bada, dokumentazioa alde bietatik inprimatuta egongo da, grapaz lotuta, eta, ez, ordea, koadernatuta.

- ✓ Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egongo dira, eta, honako hauek izan beharko dira:
 - Jatorrizkoak.
 - Notario edo fede-emaile publiko batek legeztatutako kopiak.
 - Administrazio kontratatzaileak konpultsatutako kopiak.

Ondorio horietarako, Haurreskolak Partzuergoko zerbitzu teknikoek proposamenak aurkezteko epearen azken egunaren bezperako 13:00ak arte konpultsatuko dute dokumentazioa.

Enpresa atzerritarrek dokumentu guztiak ofizialki euskarara edo gaztelaniara itzulita aurkeztuko dituzte.

Enpresek hornitu beharreko moduluen ezaugarri teknikoak aurkeztu beharko dituzte, baldintza teknikoen agirian eskatzen dena betetzen dutenez egiaztatzeko.



Eskaintzak paperean (kopia bat) eta beste euskarri iraunkor batean (CD-ROM salbu) aurkeztuko dira, hau da, kontratazio-organoari informazioa lizitazioan zehar gorde ahal izateko aukera ematen dion edozein euskarritan. Paperaz gain, euskarri iraunkorrak dira USB memoriak, memoria-txartelak eta ordenagailuko disko gogorrak. Euskarri iraunkorra gutun-azaleko bakoitzean sartu beharko da, paperezko eskaintzarekin batera.

Paperean eta beste edozein euskarri iraunkorretan aurkeztutako eskaintzen artean kontraesanik badago, paperean adierazitakoa lehenetsiko da. Hala ere, dokumentazioa aztertuta eta arrazoizko irizpideak erabilita, kontratazio-organoak bestelakorik ezarri ahalko du.

16.2.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA

Gutun-azalak honako toki hauetan aurkeztu ahal izango dira:

16.2.1.- Haurreskolak Partzuergoaren Erregistro Nagusia, Haurreskolak Partzuergoaren Egoitzaren Eraikineko (Jaizkibel eraikina) lehenengo solairua, Otaola Hiribidea 29, 20600 - Eibar.

16.2.2.- Correos bulegoak, baldintza-agiri honetan ezarritako epearen eta orduen barruan. Kasu horretan, lizitatuak berriaz justifikatu behar du correos bulegoan bidalketa zein data eta ordutan egin den, eta Kontratazio-mahaiari iragarri eskaintza bidali duela, fax bidez (943120737) edo mezu elektronikoa bidez (ekonomia@haurreskolak.eus).

Bidalketa egin dela iragartzeko, dokumentazioa aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen emango da horren berri, eta, gainera, espediente-zenbakia, gutun-kopurua eta lizitatuak identifikatu beharko dira. Iragarkiarekin batera, gordailuaren egiaztagiria erantsi beharko da, haren data eta ordua argi eta garbi adierazita.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, dokumentazioa ez da onartuko. Epe hori amaitu eta egutegiko hurrengo hamar (10) egunetan jasotzen ez bada dokumentazioa, ez da inolaz ere onartuko.

16.3.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak aurkezteko azken eguna 2017ko azaroaren 20a izango da, 13:00etan.

Epez kanpo aurkeztutako proposamenak **ez dira inola ere onartuko**.

17. - A GUTUN-AZALEAN (ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

"A" GUTUN-AZALEAN sartu behar dira jarraian adieraziko diren dokumentu guztiak, bai eta orri independente bat ere, aurkeztu diren dokumentuen zerranda jasotzen duena.

Enpresen jarduteko gaitasuna eta nortasun juridikoa

17.1.- Norberaren izenean edo besteren ahaldun gisa eskaintza sinatzen duen pertsonaren **Nortasun Agiri Nazionala**.

17.2.- Lizitatuak **pertsona juridikoa** bada, Merkataritza Erregistroan inskribatutako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu (baldin eta aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren betekizuna bada dokumentuok inskribatzea): eraketa-eskritura, aldaketen eskritura eta indarrean dauden estatutuak. Betekizun hori aplikagarria ez bada, alderdi



horiek egiaztatzeko, pertsona juridikoaren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, dagozkien aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren dokumentua aurkeztuko dira, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatuta.

17.3.- Eskaintza sinatzen duen pertsona beste baten ordezkari gisa ari bada, sinatzen duen pertsonak horretarako **ahalorde nahikoa** eduki beharko du, eta, horretarako, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da. Ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, hala xedatuta baitago Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan.

17.4.- SPKLTBren 60. artikuluan zerrendatutako **kontratatzeko debekuetako bat ere ez duela** eta **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak** (indarreko xedapenek ezartzen dituztenak) **egunean dituela egiaztatzeko erantzukizunpeko deklarazioa.**

Lizitzailea **enpresa-talde** bateko kide bada, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Enpresak batzen dituen enpresa-taldeari buruzko deklarazioa aurkeztu beharko du, taldea osatzen duten enpresak zeintzuk diren eta taldearen izena zein den adierazita.
- Hala badagokio, prozedura horretan parte hartzen duten eta lotura duten gainerako enpresak identifikatu beharko ditu.

Deklarazio hori behar bezala **sinatuta** eta baldintza-agiri honetako **I. Eranskinean agertzen den ereduari** jarraikiz aurkeztuko da.

17.5.- KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOAK:

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko eskakizunak eta eskakizun profesionalak hautaketa-fasean erabakigarriak izango dira. Jarraian adieraziko diren eskakizunak betetzen ez badira, enpresak prozeduratik baztertuko dira.

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Negozio-bolumenaren gaineko deklarazioa, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-eremuko negozio-bolumenaren gain, gehienez ere enpresariaren jarduera sortu edo hasi zen dataren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiekin lotuta, 150.000 euroko zenbatekoan edo altuagoan (BEZ kanpo).

Sortu berri diren enpresek gutxienez finantza-erakunde baten aldeko txostena aurkeztu beharko dute, eta, bertan, berariaz jaso beharko da lizitzaileak beharrezko gaitasuna daukala lizitatzen duen kontratuari aurre egiteko, edo, hala badagokio, lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguru bat duela justifikatu beharko da.

Kaudimen teknikoak:

Enpresariaren kaudimen teknikoak egiaztatzeko, jarraian zerrendatzen diren bitartekoak erabili beharko dira:

- Enpresan integratuta dauden edo ez dauden teknikariak edo unitate teknikoak egiaztatu beharko dira, kontratua exekutatzear arduratuko direnak.



- Hornituko diren produktuen deskribapenak eta argazkiak aurkeztu beharko dira, eta sektore publiko kontratatzaileko entitateak hala eskatzen badu, horiek egiazkoak direla ziurtatu ahal izango da (SPKLTBren 77.1e) artikulua).
- Enpresaburuak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatu ahal izango ditu, horiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein izanda ere, baldin eta berariaz frogatzen badu kontratua exekutatzeko benetan bitarteko horiek eduki badituela.

17.6.- Kontratua exekutatzean baldintza bereziak betetzeko eta baliabideak adskribatzeko konpromisoa, baldintza-agiri honen **II. Eranskinean** agertzen den ereduaren arabera.

17.7.- Aldi baterako enpresa-elkartea: Hainbat lizitatzailerik aldi baterako enpresa-elkartean parte hartu nahi badute, horietako bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko klausuletan adierazitakoari jarraikiz, hau da, A gutun-azalari buruzko dokumentazioa taldean parte hartu duten lizitatzailerik guztiek aurkeztu beharko dute.

Halaber, proposamen-idazki bat aurkeztu beharko dute, bertan adierazita sinatzen duten enpresen izenak eta egoerak, horietako bakoitzaren **partaidetza**, eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko botere nahikoak dituen **ordezkari edo ahaldu bakarria izango den pertsona fisikoa**. Hala ere, botere mankomunatuak egon ahal izango dira zenbateko esanguratsua duten ordainketak edo kobrantzak egiteko. Halaber, adjudikaziodun suertatuz gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa jasoko da. Dokumentu hori elkartea osatzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du. Kontratua aldi baterako elkarte bati adjudikatzen bazaio soilik formalizatu beharko da elkarte hori eskritura publikoan.

17.8.- Konfidentzialtasuna: Beharrezkotzat jotzen bada, lizitatzailerik adierazi ahal du gutun-azal horretan jasotako eskaintzako zein informazio eta alderdi diren konfidentzialak, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin zerikusia dutelako; **III. Eranskineko** ereduaren bitartez egin behar du hori, eta azaldu egin behar du zer lotura dagoen datu horien eta sekretu tekniko edo merkataritzakoaren artean. Eskaintza ekonomikoak eta eskaintza teknikoak ez dute inola ere konfidentzial izaera edukiko.

17.9.- Enpresa atzeritarrak: Baldintza-agiri honen **IV. Eranskinean** jasotzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, kasuan kasuko berezitasun eta guzti.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailerik ez dute zertan aurkeztu klausula honen 17.1., 17.2., 17.3., 17.4. eta 17.5. zenbakietan aurreikusitako dokumenturik, baldin eta indarreko ziurtagiriak klausula horietan aipatzen diren datuak jasotzen baditu. Kasu horretan, ziurtagirian jasotako egoerak aldatu ez direla adierazi beharko dute, eta, horretarako, baldintza-agiri honen **I. Eranskinean** agertzen den erantzukizunpeko deklarazioko **5. apartatua** bete beharko dute.

18.- B GUTUN-AZALEAN (BALIO-IRITZIA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK APLIKATUTA EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Enpresa lizitatzailerik egindako balorazio subjektiboen proposamenei buruzko dokumentuak **“B gutun-azala”** izena eramango duen gutun-azal independentean sartuko dira.



“B” gutun-azalaren barruan enpresa lizitzaileak aurkibide bat sartuko du, aurkeztu diren dokumentu guztiak identifikatzeko. Dokumentuak apartatu honetan eskatzen diren ordenan eta bereizita jarriko dira.

Erosketa-sistema:

Erosketen kudeaketaz arduratuko den atari edo katalogo elektronikoa izanez gero, honen funtzionamendua eta ezaugarriak azaltzen dituen memoria erantsi beharko da.

Produktuaren eta funtzionaltasunaren ezaugarriak eta prestazioak:

- **VI. Eranskinean** adierazten den fitxa teknikoa, baina balio-iritzirako kontuan hartu beharreko alderdiak aipatzen dituzten atalak beteta:

- ❖ Lizitzailearen ustez baldintza-agirian zehaztutakoak baino hobekak diren ezaugarriak edo prestazioak eskaintzen dituzten alderdiak.
- ❖ Lizitzailearen ustez baldintza-agirian zehaztutakoak baino hobekak diren funtzionaltasun-prestazioak eskaintzen dituzten alderdiak.

- Ziurtagiriak: Fitxa teknikoan goian aipatutako alderdiak zehazteaz gain, alderdi horiek justifikatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Hau da, entsegu-ziurtagiriak eta EE adostasun-ziurtagiriak, jostailuei buruzko zuzentarauaren arabera (**ikus VII. Eranskina**). Entsegu-txostenak eskuragarri egon beharko dira, zalantzak argitu behar izanez gero eskatu egin baitaitezke.

Kalitateari buruzko alderdiak:

Enpresaren aldetik kalitate-, ingurumen- eta prebentzio-mailako politika bermatzen duten enpresa-ziurtagiri guztiak erantsi beharko dira.

Zerbitzuari buruzko alderdiak:

- Azalpen-memoria: Enpresa lizitzaileek jostailuak erosteko eskumena duten Haurreskolak Partzuergoko erosketa-unitateen esku jartzen dituzten bitartekoak eta gaitasuna baloratzen dituen azalpen-memoria aurkeztuko da. Memorian enpresa lizitzaileak eskuragarri dauzkan bitartekoak zehaztuko dira, besteak beste:

- Giza taldea
- Banaketa-logistika
- Garraio-logistika

- Biltegien kokapena: Enpresa lizitzaileek esparru-akordioa exekutatzeko Haurreskolak Partzuergoaren esku jartzen dituzten biltegien zerrenda zehatza. Zerrenda horretan biltegi horien kokapena (helbidea, probintzia, posta-kodea) adierazi beharko da.

19.- C GUTUN-AZALEAN (ESKAINZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa baldintza-agiri honen V. eranskinean jasotako ereduaren arabera idatzita aurkeztuko da (Word formatuan eta Excel fitxeroan). Ez da onartuko Haurreskolak Partzuergoak eskaintza balioesteko funtseko zat jo duena argi eta garbi ezagutzea saihesten duen omisio, akats edo zirriborrorik duen eskaintzarik.

Proposamena bai Word formatuan eta bai Excel fitxeroan aurkeztea beharrezkoa izango da. Proposamena bai ez badator bai aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin,



ezarritako eredia nabarmen aldatzen bada edo lizitatzaiileak akats edo hutsuneren bat dagoela eta bideraezina dela aitortzen badu, kontratazio-organoak ez du onartuko kasuan kasuko proposamena. Edonola ere, eredu hitzen bat aldatu edo ez agertze hutsa ez da aski izango proposamena ez onartzeko, ereduaren beraren zentzu orokorra aldatzen ez bada.

Proposamenean jasanarazi beharko den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da, partida independentean.

Nahitaezkoa izango da V. Eranskinean zein sorta/etara, azpisorta/etara lizitatuko den zehaztea.

20.- GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA KALIFIKATZEA

20.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak **A gutun-azalean** (Administrazio-dokumentazioa) **aurkeztutako dokumentuak aztertu eta kalifikatuko ditu**, baldin eta gutun-azalak epe barruan aurkeztu badira eta baldintza-agiri honetan ezarritako betekizun formalak bete badira.

Aurkeztutako dokumentazioan **zuzendu beharreko akats edo omisiorik** antzematen bada, kontratazio-mahaiak **posta ziurtatu bidez jakinaraziko** die interesdunei. Hala ere, jakinarazpen hori posta elektronikoko bidez edo telefonoz ere jaso ahalko da. Halaber, interesdunei kontratazio-mahaiaren zuzenketak aurkezteko epea emango zaie, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurreko klausulan ezarri diren zuzenketak gorabehera, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko **argibideak** eskatu ahal izango zaizkie lizitatzaiileei, bai eta dokumentu osagarriak eskatu ere, gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak betetzen diren egiaztatzeke. Lizitatzaiileek bost (5) eguneko epea izango dute eskatutakoa aurkezteko, eta ezin izango dute dokumentaziorik aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onarpen-deklarazioa egin ostean.

20.2.- Dokumentazioa kalifikatu eta zuzenketak egiteko epea igaro denean, kontratazio-mahaiak berariaz **zehaztuko ditu gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak bete dituzten lizitatzaiileak, eta onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu.**

Kontratazio-mahaiak lizitatzaileraren bat baztertzeari erabakitzen badu, erabaki horren berri eman beharko zaie interesdunei, administrazio-prozedura erkideari buruzko Legean (urriaren 1eko 39/2015 Legean) ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, onartutako eta baztertutako lizitatzaiileen eta baztertzeko arrazoiaren zerranda kontratatzailearen profilean edo prozeduraren arabera egokiak diren beste bitarteko batzuetan kontsultatu ahal izango da.

21.- BALIO-IRITZIA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEAK APLIKATUTA EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

Jarraian, mahaiak **B gutun-azala** irekiko du. Bertan, automatikoki zenbatetsi ezin diren, eta, beraz, balorazio subjektiboaren menpe dauden irizpideak jaso dira. Zehazki, **aurreko fasean onartu diren lizitatzaiileak aurkeztutakoak** aztertuko dira.

Proposamenak ireki ondoren, **eskaintako produktu** guztiak kontratazio-mahaiaren esku egongo dira, kasuan kasu egokitzat jotzen duen azterketa eta egiaztapena egiteko.



Produktuen lagina beharrezkoa izan daiteke kontratazio-mahaiak baldintza-agiri honen hamaseigarren klausulan ezarritako balorazio-irizpideak balora ditzan. Enpresa lizitatuak zintzuz egin behar dute produktuak kasuan kasuko lokalera eramango dituztela.

Kontratatuaren profilean argitaratuko da beharrezko informazioa, honako hauen gainean:

- Laginak aurkezteko ordua eta tokia
- Laginak aurkezteko modua, enpresa lizitatuak bete beharko dutena.

Gainera, kontratazio-mahaiak behar bezala egiaztatuta dagoen kanpo-entitate bati eskatu ahal izango dio produktu horietan egokitzat jotzen dituen balorazioak eta entseguak egin ditzala. Horrenbestez, mahaiak laginak ez itzultzea erabaki ahal izango du, ondorengo jardueretan erabiltzeko. Ondorengo jardueren ondorioz baldintza teknikoan agirian ezarritako gutxieneko baldintzaren bat urratu dela egiaztatzen bada, baldintza-agiri honetako hogeita hamaikagarren klausulan xedatutakoaren arabera, esparru-akordioa indarrrik gabe utzi ahalko da.

Balio-iritzi bat behar duten eskaintzak aztertzeko, kontratazio mahaiak gehienez ere bi (2) hilabeteko epea izango ditu.

22.- ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

Kontratazio-mahaiak, eskaintzak jendaurrean irekitzeko adierazitako tokian, egunean eta orduan, ahoz jakinaraziko du B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa ireki eta ebaluatzearen ondoriozko emaitza.

Ondoren, C gutun-azala (Eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideak) irekiko du, eta gutun-azal horretan aurkeztutako eskaintzak irakurriko ditu. Eskaintzak aztertu ondoren eta balio-iritzia egitea eskatzen duten irizpideak aplikatuz ebaluatutako eskaintzan lortutako puntuazioa kontuan hartuta, **ekonomikoki onuragarrienak diren eskaintzak zehaztuko dira.**

23.- ADJUDIKAZIORAKO HAUTATUTAKO LIZITATZAILEAK/LIZITATZAILEEK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

23.1.- Kontratazio-organoak hamar (10) egun balioduneko epea emango die eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duten lizitatuak, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, **inguruabar hauek egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezteko:**

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela: Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:
 - HAKLEOren 15.2. artikuluan ezarritako betekizun formalak betetzen dituela baieztatzen duen ziurtagiri positiboa, zerga-administrazioko organo eskudunak emana.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria; bestela, zerga horretan alta emanda egon arren oraindik ordaindu beharrik sortu ez bada, alta-dokumentua. Nolanahi ere, aurkeztutako ordainagirian jardueraren epigrafea ageri ez bada, alta-dokumentua erantsi beharko da. Dokumentuotan, kontratuaren xede den jardueraren epigrafea agertu behar da, hain zuzen ere enpresari lanean ari den lurraldean jarduteko



ahalmena ematen diona. Gainera, zerga horretan baja emanda ez dagoela dioen erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko da.

- HAKLEOren 15.2. artikuluan ezarritako betekizun formalak betetzen dituela baieztatzen duen ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzako administrazio-agintaritza eskudunak emana. Salbuespenen bat kontuan izan behar bada, erantzukizunpeko deklarazioaren bidez egiaztatu beharko da inguruabar hori.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiria indarrean daukatela frogatzen dutenek ez dituzte dokumentu horiek aurkeztu beharko hura indarrean dagoen artean eta bertan adierazitako inguruabarrak aldatu ezean. Adjudikaziodunak espresuki eman beharko du horren berri esparru-akordioa formalizatzeko dokumentuan, hau da, inskripzio-ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan adierazitako ezer ez dela aldatu.
- c) Kontratatzeko gaitasuna daukala edo kontratuaren exekuzioari adskribatzeko dituen baliabideak badauzkala egiaztatzeko, kontratazio-organoak eskatzen dituen dokumentu guztiak aurkeztu behar ditu.

Klausula horren ondorioetarako, Gizarte Segurantzarekiko, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziarekiko eta Foru Ogasunekiko betebeharrak egiaztatzen dituzten ziurtagiri positiboak, bitarteko telematiko, informatiko edo elektronikoen bidez inprimatuak, baliozkotzat joko dira, HAKLEOren 15. artikuluko aurreikuspenen arabera.

23.3.- Errekerimendua aipatu epean **era egokian betetzen ez bada**, lizitatzailleek beren eskaintzak atzera bota dituztela ulertuko da.

24.- BEHIN BETIKO BERMEA

24.1.- Hala ere, eta enpresek Haurreskolak Partzuergoko zentroetan egiten diren kontratuetan duten partaidetzarekin lotuta, baldintza-agiri hauen hogeita hamazortzigarren klausulan aurreikusitakoari jarraikiz, esparru-akordioan adjudikaziodun suertatzen diren enpresek **behin betiko bermea** eratu beharko dute, lizitatzen duten sortarako edo azpisortarako (edo sortetarako edo azpisortetarako) balioetsitako balioaren % 5aren parekoa, esparru-akordioak iraungo duen aldirako, SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusitako moduren batean. Berme hori bost egun balioduneko epean eratu beharko da, lizitatzaillei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik zenbatzen hasita. Epe hori hamabost egun baliodunera hedatu beharko da, baldin eta kontratuak kontratazio-arloko errekurso bereziren bat jasotzen badu.

24.2.- Berme-epea esparru-akordioak irauten duen aldiaren parekoa izango da.

24.3.- Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko harik eta berme-epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo enpresa adjudikaziodunaren errurik gabe kontratua suntsiarazi dela deklaratu arte.

III.- ESPARRU-AKORDIOA ADJUDIKATU ETA FORMALIZATZEA.

25.- KONTRATUA ADJUDIKATU ETA JAKINARAZTEA

25.1.- Kontratazio-organoak **arrazoitutako ebazpen bidez** erabakiko du **esparru-akordioa adjudikatzea**.



Espedientean behar bezala justifikatuko diren arrazoiak direla eta, kontratazio organoak esparru-akordioa esleitzeko aurreikusitako epea, proposamenen irekieratik hasi eta bi (2) hilabete luzatu ahalko du.

SPKLTBren 153. artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatu ahal izango zaie adjudikazioaren arrazoiei.

Kontratazio-organoak ezin izango du deklaratu prozedura hutsik geratu dela, baldin eta baldintza-agirian adierazi diren irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren bat badago.

25.2.- Adjudikazio-ebazpena **lizitatzaleei jakinaraziko zaie eta, aldi berean,** kontratatzailearen profilean **argitaratuko da** (www.haurreskolak.eus).

Jakinarazpena edozein bide baliatutan egin ahalko da, baldin eta jasota gelditzen bada jakinarazpena hartzailearengana iritsi dela; gainera, jakinarazpenean beharrezko informazioa eman beharko da baztertutako lizitatzaleak edo hautagaiak aukera izan dezan behar adina funtsatutako errekurtsua aurkezteko adjudikazio-akordioaren aurka. Zehazki, honako informazio hau eman beharko da:

- adjudikazio-prozeduratik kanporatutako lizitatzaleei dagokienez ere, horien eskaintza ez onartzearen arrazoiak adierazi beharko dira, laburtuta.
- jaso beharko dira, batetik, adjudikaziodunaren izena eta, bestetik, onartutako gainerako lizitatzaleek aurkeztutako artean hura aukeratu izateko erabakigarriak izan diren proposamenaren ezaugarri eta abantailak.
- Kontratua formalizatzeko epea, SPKLTBren 156. artikuluen arabera.

26- UKO EGITEA EDO ATZERA EGITEA

Kontratazio-organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla kausa, eta lizitatzaleei jakinarazpen egokia eginda, esparru-akordioa sinatzeari uko egin ahalko dio, adjudikazioa burutu baino lehen. Halaber, adjudikazioa burutu baino lehen atzera egin ahalko du, baldin eta zuzendu ezin den arau-hausteren bat antzematen bada kontratua prestatzeko edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauetan, SPKLTBren 155. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

27.- ESPARRU-AKORDIOA FORMALIZATZEA

27.1.- Esparru-akordioa ezin izango da formalizatu lizitatzaleei adjudikazioa jakinarazi zaienetik **hamabost egun baliodun** igaro baino lehen.

27.2.- Kontratua formalizatu baino lehen **aldi baterako enpresa-elkartearen** formularekin parte hartu duten enpresa adjudikaziodunek aldi baterako enpresa-elkartea eratu izanaren eskritura publikoa aurkeztu behar dute, eta, bertan, berriaz jaso beharko da esparru-akordioaren ondoriozko betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko botere nahikoa duen elkarteko ordezkariaren edo ahaldun bakarraren izendapena; edonola ere, arauz ezarritako baldintzak betetzen badira, botere mankomunatuak baliatuko dira.

27.3.- Sinatu behar d(ir)en kontratua(k) formalizatu izana publiko egingo da, SPKLTBren 154. artikuluan ezarritako irizpideen arabera aplikagarriak diren artikuluko horretako xedapenekin bat etorrira.



IV.- ESPARRU-AKORDIOAAREN ONDORIOEI, BETETZEARI ETA SALBUESPENEI BURUZKO XEDAPENAK

28. - ADJUDIKAZIODUNAK ARDURADUNA IZENDATZEA

Hautatutako operadoreek berariaz **identifikatuko** dituzte beren orde esparru-kontratu hau exekutatzearen ondoriozko gorabeherak konpontzeko eta harremanak ezartzeko solaskide izango diren **pertsonak**.

Halaber, entitatearen aldetik informazioa helarazteko jakinarazpen guztiak egingo dituzten arduradunak identifikatu beharko dira. Izan ere, enpresaren datuak, entregen abisuak, albaranak, ordainagiriak eta antzeko beste datu batzuk helaraziko dira, eta, beraz, kasuan kasuko pertsonen izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono-zenbakia, faxa eta helbide elektronikoa nahiz enpresako erakundean duten kargua adierazi beharko dira.

29.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

SPKLTBren 210. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua betetzean sortzen diren zalantzak interpretatu eta ebazteko, interes publikoko arrazoen ondorioz aldatzeko, kontratua indargabetu beharra erabakitzeko eta esparru-akordioaren ondorioak zehazteko prerrogatibak izango ditu. Aipatutako prerrogatiben arabera hartzen diren erabakiek administrazio-bidea agortzen dute, eta berehala bete behar dira.

30.- ESPARRU-AKORDIOAREN XEDEA ALDATZEA

Esparru-akordioa interes publikoko arrazoen ondorioz eta aurreikusitako kausei erantzuteko aldatu ahal izango da, SPKLTBren aurreikuspenen arabera. Aldaketa horiek ezin izango diote inola ere eragin esparru-kontratuaren funtsezko baldintzei.

30.1.- Esparru-akordioa **ALDATZEKO** SPKLTBn eta HAKLEOn ezarritakoa bete beharko da.

30.2.- Esparru-akordioa indarrean den bitartean enpresa adjudikaziodunek esparru-akordio honetan hautatu den produkturen bat merkaturatzeari uzten badiote, antzeko beste produktu bat eskaini beharko dute, ezaugarri tekniko eta kalitate berdinak edo altuagoak dituenak, prezioa igo gabe, esparru-akordioa adjudikatzean aplikatu ziren ezaugarri teknikoak eta kalitatea betetzen direla egiaztatu ondoren. Ezin bada aipatu produktua adierazitako baldintzetan eskaini, hornitzailea sorta edo azpisorta zehatz horretatik kanpo geratuko da, esparru-akordioan geratzen zaion denboran, eta Haurreskolak Partzuergoak produktu hori hirugarren hornitzaileei eskatu ahalko die, esparru-akordioaren barruan hura eskaintzen duen beste hornitzaileerik ez badago.

31.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAK ERALDATZEA

31.1.- Esparru-akordioa indarrean den bitartean, adjudikaziodunak gehienez ere bost egun balioduneko epean **jakinarazi** beharko ditu Administrazioarekin kontratatzeko bere gaitasunei eragiten dieten **aldaketak**, SPKLTBren 60. artikuluan zehaztutako kasuekin lotuta.

31.2.- Kasuan kasuko aldaketaren ondorioz enpresa eraldatzen bada edo **kontratua** beste entitate bati **laga edo subrogatzen** bazaio, enpresa adjudikaziodunak, SPKLTBren 219. artikuluan ezarritakoa betetzeko, idazki bat aurkeztu beharko du, jarduteko gaitasuna eta nortasun juridikoa egiaztatzeko, bidezkoa bada, bai eta kaudimena egiaztatu eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela



egiaztatu ere. Nolanahi ere, aldaketak enpresa eraldatzea edo beste entitate baten kontratuan laga edo subrogatzea eragiten badu, **kontratazio-organoaren aurretiazko berariazko baimena** beharko da, eta baimen hori eduki arte ezingo da garatu.

32. - ESPARRU-AKORDIOA INDARRIK GABE UZTEKO ARRAZOIAK

32.1.- Esparru-akordioa **indarrik gabe** geratuko da, SPKLTBren 223. eta 299. artikuluetan aurreikusten diren arrazoiak gertatzen badira, eta SPKLTBren 224., 225. eta 300. artikuluetan adierazitakoa aplikatuta.

32.2. - Halaber, esparru-akordioa **indarrik gabe uzteko arrazoi zehatzak** dira, SPKLTBren 223. artikuluko h) letraren arabera:

- baldintza-agiri honetan ezartzen den konfidentzialtasun-betebeharra urratzea, haren ondoriozko kontratuetan

- kontratua exekutatzeko baldintza bereziak urratzea, bai eta akordio honek bete behar dituen baldintza-agirietan ezartzen diren bestelako baldintza edo betekizunak urratzea ere.

- orokorrean, aurkeztutako dokumentuetako edo deklarazioetako edukiak egiazkoak ez izatea

32.3.- Kasu guztietan bete beharko da HAKLEOren 109. artikuluan ezarritako prozedura.

32.4.- Esparru-akordioa kide den enpresaren batek eskaintza aurkezten ez badu horretarako deia jaso duenean, adjudikazio honen ondoriozko kontratuetako edozeinetan, ezingo du bere burua aurkeztu izapidetzen diren hurrengo bi kontratuetara.

33.- ESPARRU-AKORDIOAREN JARRAIPEN-BATZORDE TEKNIKOA:

Esparru-akordioaren jarraipen-batzorde teknikoa (aurrerantzean, "Batzordea") arduratuko da jarraipen teknikoa egiteaz.

Batzordeko kideak honako hauek izango dira:

- Haurreskolak Partzuergoko kontratazio-arduraduna.
- Haurreskolak Partzuergoko profesional-taldearen ordezkariak.

Batzordeak, zehazki, esparru-akordio honetan ezarritako irizpide teknikoak aplikatu ote diren eta zehaztutako helburuak bete ote diren aztertuko du, oro har.

Halaber, Batzordeak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Euskarri teknikoa eman beharko die kasuan kasuko lizitazio-prozesuetan jostailuak eta motrizitate ekipamendua erosteko eskumena duten erosketa-unitateei.
- Kontratuak era egokian exekutatzen direla balioztatuko du.
- Esparru-akordioa enpresa adjudikaziodunak betebeharrak betetzen dituela teknikoki kontrolatuko du eta, arau-hausterik edo atzerapenik bada, bidezkoa bada, zigorrak proposatuko ditu.
- Kontratazio-organoari esparru-akordioaren jarraipenaren berri emango dio.

Zeregin horiek betetzeko, Batzordeak honako ekintza hauek gauzatuko ditu:

- Inkesta jostailuak erosteko eta eskuratutako datuak ustiatzeko eskumena duten Haurreskolak Partzuergoko erosketa-unitateei.
- Ikuskapenak eta bisitak hornitutako elementuak ebaluatzeko: Batzordeak, hala eskatzen duenean, adjudikatutako ondasuna egin edo prestatzeko prozesua ikuskatu eta horren berri izateko eskumena du. Gainera, kalitatea kontrolatzeko enpresa edo laborategiak izendatu ondoren, erabilitako materialen eta egindako ondasun eta produktuen gainean frogak, azterketak eta entseguak egiteko eskatu



ahalko du, hornitzaileak bete beharreko kalitate-maila eta egokitasun-maila zaintzen dituela egiaztatzeko.

34.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK LAN-ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN:

Esparru-akordioaren ondoriozko kontratuaren adjudikaziodun suertatzen den enpresak bete egin beharko ditu lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, ezintasunen bat duten pertsonak gizarteratzekoak, zerga-arlokoak, datu pertsonalen babeserakoak, ingurumenaren gainekoak, eta, bereziki:

- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.
- Enpresa adjudikaziodunak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun-eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.
- Era berean, indarreko araudian ezarritako lan-arriskuen prebentzioaren gaineko betebeharrak beteko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak ez baditu betetzen lan-, gizarte- eta ingurumen-arloko betebeharrak, edo laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko xedapenak eta datuak babesteari buruzko araudia urratzen baditu, administrazio kontratatzaileari ez dio erantzukizunik eragingo. Nolanahi ere, kontratazio-organoak enpresa adjudikaziodunari aipatu betebeharrak bete direla dokumentu bidez egiaztatzeko eskatu ahalko dio.

Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauak xedatutakoa bete behar du adjudikaziodunak. Berak edukiko du horren erantzukizuna; inolaz ere ez Haurreskolak Partzuergoak.

35.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

35.1.- HIZKUNTZA.

Enpresa adjudikaziodunaren eta kontratua exekutatzekoan harekin harremana izango duten erabiltzaile edo pertsonen artean komunikatzeko zein hizkuntza erabiliko den, ahoz nahiz idatziz, erabiltzaileak edo hirugarrenak erabakiko du, beti. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, enpresa adjudikaziodunak hizkuntza ofizial bietan egingo dizkie jakinarazpen eta komunikazio guztiak pertsona fisikoei zein juridikoei, fakturak eta salerosketako bestelako dokumentuak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratatzailearekin ezartzen diren harremanetan normalean euskara erabiliko da.

35.2.- GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA.

Kontratua exekutatzeko langile berriak kontratatu behar badira, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legezko langabezia-egoeran dauden pertsonari, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu



bategina onesten duenak) 208. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; hori horrela, garatu beharreko lan zehatzaren ezaugarriak ikusita ezinezkoa dela justifikatzen ez bada, kontratazio berrien % 15 gutxienez kolektibo horietako pertsoneri egiten zaizkiela bermatu beharko dute.

Kontratatutako kontratua exekutatzeko kontratatzen dituen langile berriak eta langabeziaren eragina bereziki pairatzen duten kolektiboetako pertsonak kontratatu dituela egiaztatu beharko du, eta, horretarako, beharrezko dokumentazioa aurkeztuko du: kasuan kasuko langilearen izen-abizenak, NANA, eta Gizarte Segurantzaren altan eta afiliatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Kontratatutako betebeharrak hau salbuetsi egin daitezke, baldin eta kontratuaren adjudikazioak langileak subrogatzea baldin bada eta kontratu berriak ez badu behartzen beste inor kontratatuzera.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada edo klausulan aurreikusitako legezko langabezia-egoeran dauden pertsonak kontratatutako betebeharrak urratzen bada, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez % 10eko zigorra jarriko da.

35.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA.

Kontratatutako bermatu egingo du kontratua exekutatzeko dokumentazioa, publizitatea, irudia eta materialak baliatzean hizkuntza ez sexista erabiltzen dela, eta emakumeak baztertzeko irudiak edo estereotipo sexistak bultzatzen dituztenak saihestuko dira. Hau da, berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna eta genero-rol eta -identitateen aniztasuna sustatzen dituzten irudiak indartuko dira.

Kontratatutako honako hauetan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Jaurlaritzarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa.

Enpresa kontratatutako 250 langile baino gehiago baditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat duela eta hura martxoaren 22ko 3/2007 Legean (emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoan) ezarritakoarekin bat datorrela justifikatu beharko du.

35.4.- ENPLEGUAREN KALITATEA ETA OINARRIZKO LAN-ESKUBIDEAK.

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak

Enpresa kontratatutako lan-arloan, gizarte-segurantzaren, eta laneko osasunean eta segurtasunean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta, zehazki, garatu beharreko prestazioek lan-ordenantza edo hitzarmen kolektiboren bat behar baldin badute, kontratatutako kasuan kasuko lan-ordenantza eta hitzarmen kolektiboa bete beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko deklarazio bidez egiaztatuko du, edo, bidezkoa bada, organismo eskudunen ziurtagirien bidez kontratua exekutatzeko bete egin direla lanpostuen babesaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dauden xedapenen ondoriozko betebeharrak, aplikagarri zaizkienak.

Betebeharrak hori urratzen bada, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 10eko zigorra jarriko da.



Lan-harreman indibidual eta kolektiboen gaineko araudia betetzeko baldintzak

Gaiaren gaineko agintaritza eskudunak enpresa kontratista kondenatzen badu administrazio-bideko zehapen irmoaren bidez, lan-harremanen arloan arau-haustea egin dituelako -zehazki, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeak (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 6. edo 7. artikuluetan tipifikatutako arau-haustea, kontratua exekutatzean eginak-, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 5eko zigorra jarriko da, baldin eta isuna arau-hauste arinagatik jarri bada (6. artikulua), edo gehienez ere % 10ekoa, baldin eta arau-hauste astunagatik jarri bada (7. artikulua).

Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astun bat egiteagatik kondenatzen bada, kontratua exekutatzen ari zen bitartean, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratistak kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat sortuko du, zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean.

Halaber, kontratistak aldian-aldian kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio lan-arriskuen prebentzioan jartzen zaion edozein zehapen, kontratua exekutatzen ari den bitartean egondako gertaeren zioz, bai eta bere kontra planteatu diren errekurtsoen eta horien gaineko ebazpenen gaineko informazioa eman ere. Informazioa emateko betebeharrak hori urratzen bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratutzat joko da, eta kontratistak, zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat izango du.

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Gaiaren gaineko agintaritza eskudunak enpresa kontratista kondenatzen badu administrazio-bideko zehapen irmoaren bidez, lan-arriskuen prebentzioaren arloan arau-haustea egin dituelako -zehazki, Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeak (abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 11. edo 12. artikuluetan tipifikatutako arau-haustea, kontratua exekutatzean eginak-, kontratua urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratuaren aurrekontuaren gehienez ere % 5eko zigorra jarriko da, baldin eta isuna arau-hauste arinagatik jarri bada (11. artikulua), edo gehienez ere % 10ekoa, baldin eta arau-hauste astunagatik jarri bada (12. artikulua).

Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso astun bat egiteagatik kondenatzen bada, kontratua exekutatzen ari zen bitartean, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratu dela ulertuko da, eta, beraz, kontratistak kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat sortuko du, zehapena administrazio-bidean irmo bihurtzen denean.

Halaber, kontratistak aldian-aldian kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio lan-arriskuen prebentzioan jartzen zaion edozein zehapen, kontratua exekutatzen ari den bitartean egondako gertaeren zioz, bai eta bere kontra planteatu diren errekurtsoen eta horien gaineko ebazpenen gaineko informazioa eman ere. Informazioa emateko betebeharrak hori urratzen bada, kontratuaren funtsezko baldintza bat urratutzat joko da, eta kontratistak, zehapena irmo bihurtzen denean, kontratua indarrrik gabe uzteko arrazoi bat izango du.



36.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

36.1.- KONFIDENTZIALTASUNA.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua exekutatu bitartean eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala izango da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, enpresa adjudikaziodunak eta kontratua exekutatzeako ardura duten langileek ezin izango dute euren onurarako erabili, ez eta beste inori eman ere, kontratatutako lanei buruzko informazio edo daturik, edo kontratua exekutatzearen ondorioz eskura dezaketen informazio edo daturik. Beraz, eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabili beharko dituzte lanaren emaitzak eta informazioa isilpean gordetzeko (SPKLTBren 140.2. artikulua). Ildo beretik, datu pertsonalik erabili behar ez den lanetan, enpresak eta haren langileek debekatuta izango dute datu pertsonaletan sartzea, eta isilpean mantendu beharko dituzte langileek zerbitzua ematean ezagutu ahal izan dituzten datu guztiak (1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea garatu duena; 83.2. artikulua).

36.2.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertuko dira pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketak eta prozedura teknikoak, automatizatuak zein automatizatu gabeak, eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan gertatzen diren datu-konexioak.

Datu pertsonalak tratatu edo eskuratzean, SPKLTBren hogeita seigarren xedapen gehigarrian eta honako arau hauetan ezarritakoa beteko da:

1. Enpresa adjudikaziodunak tratamenduaren arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta erabili behar ditu datuak.
2. Datu pertsonalak kontratuaren xedea betetzeko baino ez dira erabili behar; ezin dira erabili kontratuan ezarritakoaz besteko erabilera baterako.
3. Kontratua dela-eta eskuratzen diren datu pertsonalak ezin zaizkio eman beste inori. Hori dela eta, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak edo haiek biltzen dituzten fitxategiak inori ez helarazteko, emateko, lagatzeko edo komunikatzeko, ez ahoz ez idatziz, ez baliabide elektronikoen bidez, ez paperean ez sarbide informatikoez baliatuta, nahiz eta ikusteko soilik izan.
4. Enpresa adjudikaziodunak eta kontratuaren xede den prestazioan parte hartzen duten langile guztiek nahitaez bete behar dute Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoak (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak) 10. artikuluan ezarritakoa, hau da, sekretu-eginbeharra bete behar dute. Betebehar horrek indarrean jarraituko du kontratua azkendu ondoren ere (dela bete egin delako, dela suntsiarazi egin delako).
5. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoak (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak) eskatzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolamendukoak ezartzeko, kontratu honen xede diren lanak egiteko erabili behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:
 - Hori dela eta, lanak hasi baino lehen, datu pertsonalak erabiliko dituzten langile guztien zerrenda eman beharko dio enpresa adjudikaziodunak kontratazio-organoari, langile horien izen-abizenak, zereginak eta lantokia zehaztuz. Kontratua exekutatzen ari direla langile bati baja eman behar bazaio edo beste



bat kontratatu behar bada, enpresa adjudikaziodunak astebete pasatu baino lehen eman behar dio zerrenda berria kontratazio-organoari. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrendako langileek konpromisoa hartu behar dute, idazki formal baten bitartez, erabiltzen dituzten datu pertsonaletan sekretua gordetzeko.

- Enpresa adjudikaziodunak tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan segurtasun-neurriak ezartzen direla bermatuko du.
- Adjudikaziodunak, kontratuaren xede den prestazioa amaitutakoan, datu pertsonalak dauzkaten euskarri guztiak itzuli beharko ditu, edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu. Datu eta fitxategiak suntsitzean, ez da geratu behar datuok berreskuratzeko inolako aukerarik. Fitxategiak itzuli edo suntsitu direla egiaztatzeko, akta bat egingo da; akta hori kontratistaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko dute, eta itzulketaren edo suntsiketaren berri jasoko da bertan.

6. Kontratua indarrean egon bitartean administrazioak kontrolak egin ditzake ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren egiaztatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaile egokiak ezartzeko.

37.- AKASTUN LANAK ETA ZIGORRAK

Enpresa adjudikaziodunak bermatu egin behar du esparru-akordioaren eta kontratuen xede diren hornidurak aurreikusitako epean ematen direla, adostutako tokian, eta esparru-akordioa eta kontratua arautzen dituzten baldintza-agirietan ezarritako ezaugarri eta baldintzen arabera. Justifikatu daitezkeen nahitaezko arrazoen ondorioz hornidura gauzatu ezin izan bada, ez du horren gaineko erantzukizunik izango.

Zigorak ezarriko dira baldin eta, SPKLTBren 212. artikuluan, baldintza-agiri honetako klausuletan eta kontratuetan jaso bezala, kontratua gaizki betetzen bada edota ez bada betetzen.

Administrazioak zigorrak ezar ditzake, aurretik ohartarazita, eta gertaeren larritasunaren arabera.

Falta astuna izango da esparru-akordio honekin lotutako baldintza teknikoaren agirian ezarritako nahitaezko exekuzio-baldintzaren bat urratzen baldin bada. **Falta arina** izango da enpresa lizitzailek eskainitako hautazko exekuzio-baldintzaren bat urratzen baldin bada, baldintza-agiri honen aurreikuspenen arabera.

Kontratuak exekutatzean hiru falta arin metatzen badira, falta astun baten balioa izango dute.

Zigorak jartzeko prozedura zigortu beharreko gertaera jakinaraztean hasiko da, interesdunari entzunaldia emate aldera. Organo eskudunak ebazpena ematen duenean amaituko da prozedura.

Enpresa berandutze-egoeran sartu dela adierazteko ez da beharrezkoa izango administrazioak aldeztu aurretik agindurik ematea.

Enpresa adjudikaziodunari hornidura legez egin beharreko ordainketetatik edo ordainketa partzialetatik kenduko dira zigor horiek, edo bermetik, SPKLTBren 212.8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Berandutzearen ziozko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5aren multiplo batera heltzen direnean, kontratazio-organoak kontratua indarririk gabe utzi ahalko du, edo harekin jarraitzea adostu, beste zigor batzuk jarrita.



38.- KONTRATUA LAGATZEA, AZPIKONTRATATZEA

38.1.- LAGATZEA.

Kontratua laga ahal izango da, SPKLTBren 226. artikuluan ezarritako baldintzak beteta.

38.2.- AZPIKONTRATATZEA.

Ezin izango da kontratua azpikontratatu.

39.- BETETZEA ETA HARRERA EGITEA

Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da kontratuaren xede osoa egin duenean, bertan ezarritakoaren arabera eta administrazioa ados dagoela.

Kontratua bete eta harrera egitean, SPKLTBren 222. artikuluan eta HAKLEOn xedatutakoa beteko da.

40.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da esparru-akordio hau prestatu eta adjudikatzearekin lotutako auziak ebazteko eskumena duena, baita alderdien artean kontratua interpretatu, aldatu, bete, aplikatu eta iraungitzeari buruz sortzen diren gorabeheretan ere, SPKLTBren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.



I. ERANSKINA.

DEBEKURIK EZ DUELA ETA ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK EGUNEAN DITUELA EGIAZTATZEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA.

..... jaunak/andreak
(helbidea:.....kalea,; NAN
zenbakia:.....)(r)en
izenean (bere izena edo ordezkatzeko pertsona, entitate edo enpresarena),
jakinarazpenetarako helbidea(a)n (..... kalea,
..... posta-kodea), telefono-zenbakia eta IFK izanik,

002/17 espedientearekin lotuta,

HONAKO HAU DEKLARATZEN DU:

- Esparru-akordio honetan jarduteko gaitasun osoa eta jardueran aritzeko beharrezko baimenak dauzka.
- Ez bera, ez berak ordezkatzeko duen enpresa, ez enpresako administrari edo legezko ordezkarietako bat ere ez dago sektore publikoarekin kontratatzeko debekuren batean ere ez, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak) 60. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Ordezkatzeko duen enpresak egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarreko xedapenen bidez ezarriak, eta, bere eskaintza ekonomikoki onuragarriena dela ezartzen bada, zin egiten du gehienez ere hamar (10) egun baliaduneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, betekizun hori egiaztatuko duela, baldintza-agiri honen 22. klausulan ezarritako eran.
- Ez du esparru-akordio hau prestatzeko dokumentuak edo zehaztapen teknikoak egiten parte hartu edo ez da adjudikaziodun izan, nola bere kabuz, hala aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez.
- _____¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dago, indarreko ziurtagiri eta guzti, eta ziurtagiri hori emateko oinarri izan ziren inguruabarrak ez dira aldatu.
- _____² Enpresa-talde bateko kide da (*Merkataritza Kodeko 42.1. artikulua*)

Baiezkoa bada, lizitazio honetan parte hartzen duten enpresa-talde bereko kide diren enpresen zerrenda adierazi beharko da.

.....(e)n, 2017koaren(e)(a)n.

Sinadura

¹ Adierazi bi aukeretako bat: BAI edo EZ

² Adierazi bi aukeretako bat: BAI edo EZ



II. ERANSKINA

KONTRATUA EXEKUTATZEAN BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOAREN DEKLARAZIOA

.....
jaunak/andreak (helbidea:.....kalea,; NAN
zenbakia:.....)
.....(r)en izenean (bere izena edo
ordezkatzten duen pertsona, entitate edo enpresarena), jakinarazpenetarako
helbidea(a)n (..... kalea, posta-
kodea), telefono-zenbakia eta IFK izanik,

HONAKO HAU DEKLARATZEN DU:

002/17 esparru-akordioa exekutatzearekin eta haren ondoriozko kontratuekin lotuta, honako konpromiso hauek hartu ditu:

- 1.- Baldintza-agiri honetan adierazitako kontratua exekutzeko baldintzak bereziak beteko ditu.
- 2.- Esparru-akordioaren ondoriozko kontratuak exekutzeko adskribatuko ditu:
 - bere antolaketa produktibo propioa
 - eskaintzan adierazitako baliabide materialak eta giza baliabideak

.....(e)n, 2017....(e)ko.....aren(e)(a)n

Sinadura



III. ERANSKINA

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOEN KONFIDENTZIALTASUNA DEKLARATZEKO EREDUA

.....
jaunak/andreak (helbidea:.....kalea,; NAN
zenbakia:.....)
.....(r)en izenean (bere izena edo
ordezkatzan duen pertsona, entitate edo enpresarena), jakinarazpenetarako
helbidea(a)n (..... kalea, posta-
kodea), telefono-zenbakia eta IFK izanik,

HONAKO HAU DEKLARATZEN DU:

002/17 zenbakiko espedienteko gutun-azalean (*adierazi zein
gutun-azal den*) aurkeztutako dokumentazioarekin lotuta, konfidentzialtzat jo dira
eskaintzako informazio eta alderdi hauek, sekretu teknikoekin eta
merkataritzakoekin lotuta daudelako:

Adierazi izaera konfidentziala justifikatzen duten arrazoiak eta dagozkien
dokumentuak.

.....(e)n, 2017....(e)ko.....aren(e)(a)n

Sinadura



IV. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESAK

Enpresa atzerritar guztiek aurkeztu behar dute deklarazio bat, esparru-akordiotik eta haren ondoriozko kontratuetatik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako **epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla** eta, hala balegokio, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

1.- EUROPAR BATASUNeko ESTATU-KIDEETAKO ENPRESA ATZERRITARRAK

Europar Batasuneko estatu-kideetako enpresa atzerritarrek, banan-banan nahiz aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen dutelarik ere, A gutun-azalean ("Gaitasuna eta kaudimena") jaso beharko dituzte baldintza-agiri honen 15. klausulan aipatutako dokumentuak, honako berezitasun hauekin:

1.1.- Baldin eta Europar Batasuneko enpresak Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiria edo antzeko beste dokumenturen bat badu, eta dokumentu horrek behar bezala egiaztatzen badu Europar Batasuneko estatu-kideren batek ezarri duen kontratatzeko enpresari baimenduen zerrenda ofizialetan inskribatuta dagoela enpresa, ziurtagiri edo dokumentu hori aurkeztearekin egiaztatuko da enpresaren gaitasun-presuntzioa kontratazio-organoen aurrean, hauekin lotuta: ez daukala SPKLTBren 60. artikuluko 1. zenbakiko a), b), c) eta e) letretan jasotako kontratatzeko debekurik, eta badituela 54. artikulua eskatzen dituen jarduteko gaitasuna eta lanbide-gaikuntza, baita SPKLTBren 75. artikuluko b) eta c) letretan, 76. artikuluko a), b), e), g) eta h) letretan, 77. artikuluan eta 78. artikuluko a), c), d), e) f), g) h) eta i) letretan aipatutako kaudimena ere.

Presuntzio berbera emango zaie organismoek egiaztapenaren arloko Europako arauak betez emandako ziurtagiriei, enpresa kokatuta dagoen estatu-kideko legediarekin bat eman badira.

Aurreko apartatuan aipatzen diren dokumentuek berriaz jaso beharko dituzte enpresaria zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria igortzeko aukera ematen duten erreferentziak eta lortutako sailkapena.

I.- Baldintza-agiriko 16.1. eta 16.3. klausulei dagokienez, nortasunari buruzko identifikazio-dokumentua aurkeztu beharko dute ezarrita dauden herrialdean, edo erkidego-pasaportea, bai eta, norberaren izenean jarduten ez badute edo pertsona juridiko bat izanez gero, ordezkaritza-ahalordea ere, gaztelaniara edo euskarara itzulita.

II.- Baldintza-agiriko 16.2. eta 16.5. klausulei dagokienez (jarduteko gaitasunari eta lanbide-gaikuntzari buruzkoak), enpresak kontratatzeko gaitasuna duela ondorioztatuko da baldin eta, ezarrita dagoen Estatuko legediaren arabera, kasuan kasuko prestazioa egiteko gaituta badago.

- Jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera, lehen aipatutako Europar Batasuneko ziurtagiria edo antzeko dokumenturen bat aurkeztu ezean, enpresak nahitaez aurkeztu beharko du A gutun-azalean HAKLEOren I. eranskinean jasotako erregistroetatik batean erregistratuta dagoela egiaztatzen duen



egiaztagiria, edo, hala balegokio, eranskin horren arabera dagokion ziurtagiria.

- Legedia horretan ezarritakoaren arabera, baimen bereziren bat eduki behar bada edo antolakunde jakin bateko kide izan behar bada zerbitzua eman ahal izateko, betekizun hori betetzen duela egiaztatu beharko du enpresak.

Baimen edo kidesun hori eskatzen ez bada, inguruabar hori zehazten duen erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko da.

2.- EUOPAR BATASUNeko ESTATU-KIDEETAKOAK EZ DIREN ENPRESA ATZERRITARRAK

Europar Batasuneko estatu-kideetakoak ez diren enpresa atzerritarrek, banan-banan nahiz aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen dutelarik ere, A gutun-azalean ("Gaitasuna eta kaudimena") jaso beharko dituzte baldintza-agiri honen 15. klausulan aipatutako dokumentuak, honako berezitasun hauekin:

III.- Baldintza-agiriko 16.1. eta 16.3. klausulei dagokienez, nortasunari buruzko identifikazio-dokumentua aurkeztu beharko dute, bai eta, norberaren izenean jarduten ez badute edo pertsona juridiko bat izanez gero, ordezkaritza-ahalordea ere, gaztelaniara edo euskarara itzulia.

IV.- Baldintza-agiriko 16.2. eta 16.5. klausulei dagokienez, jarduteko gaitasuna eta lanbide-gaikuntza mintzagai, enpresek egoitza duten lekuan Espainiak duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo Bulego Kontsularrak emandako txostenaren bidez egiaztatu beharko dute, enpresek berek egiaztatu ondoren, enpresak erregistratuta daudela tokiko lanbide- edo merkataritza-erregistroan edo antzekoren batean, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedearen eremuko jardueretan aritu ohi direla egoitza duten leku horretan.

- Horrez gain, kasuan kasuko Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek emandako elkarrekikotasun-txostena aurkeztu beharko dute. Bertan adierazi beharko da atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBren 3. artikuluan aipatutakoen pareko sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan parte hartzeko, hemengoan antzeko baldintzetan. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostenik aurkeztu beharko Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoen enpresek, baldin eta akordio horren sinatzaile direla egiaztatzen bada, enpresek egoitza duten lekuan Espainiak duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo Bulego Kontsularrak emandako txosten baten bidez.

Atzerriko enpresa guztiek, baldin eta esparru-akordioaren behin-behineko edo behin betiko adjudikaziodun suertatzen badira, baldintza-agiri honetako klausuletan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, honako berezitasun hauekin.

Espainian zerga-helbidea ez duten enpresa atzerritarrek, halaber, ezarrita dauden herrialdeko agintaritza eskudunak igorritako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta, bertan, zerga-betebeharrak betetzen dituztela eta herrialde horretan eskatzen diren



gizarte-betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute. Egiaztagiria azken hamabi hilabetei buruzkoa izango da, eta gaztelaniara edo euskarara itzuliko da.



V. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak
(helbidea:.....kalea,; NAN
zenbakia:.....)

.....(r)en izenean (bere izena edo
ordezkatzen duen pertsona, entitate edo enpresarena), jakinarazpenetarako
helbidea(a)n (..... kalea, posta-
kodea), telefono-zenbakia eta IFK izanik,

HONAKO HAU DEKLARATZEN DU:

- I.** Jostailuak eta motrizitate-ekipamenduak hornitzeko kontratua adjudikatzeko prozeduraren berri izan du (zenbakia:).
- II.** Halaber, ezagutzen ditu baldintza teknikoen agiria, baldintza administratibo zehatzen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako dokumentuak, eta oso-osorik eta salbuespenik gabe onartzen ditu.
- III.** Ordezkatzen duen enpresak bete egiten ditu indarrean dagoen araudiak enpresa ireki, instalatu eta jardunean aritzeko ezartzen dituen betekizun eta betebeharrak guztiak, eta, eskaintza prestatzeko orduan, kontuan izan ditu enplegua babesteari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruz indarrean dauden xedapenek ezarritako betebeharrak guztiak.
- IV.** Zin egiten du bere izenean edo ordezkatzeko duen enpresaren izenean lizitatzen duen prestazioa exekutatzeko duela, eta eskatzen diren baldintza eta betekizunak zehatz-mehatz beteko dituela, honako unitate-prezio hauetan:

SORTA / AZPISORTA	ARTIKULUA	Prezioa BEZ gabe €	BEZ zenbatekoa €	GUZTIZKO prezioa €	GUTXIENEO BERME EPEA (hilabeteak)	GEHIENEO ENTREGATZE EPEA (egun naturalak)
1- JOSTAILUAK						
1.1.Zentzumenak estimulatzeko jolasak						
a) Txintxirrinak, haginkariak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
b) Panpinak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
c) Pelutxeak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
d) Arrasateko jostailuak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
e) Bultzatzeko jostailuak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
f) Ibilgailuak	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

g) Animaliak	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.
h) Pilotak	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.	... 1. 2. 3.
i) Argi-jolasak	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.
j) Manipulazio-mahaia	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.	... 1.
T
1.2.Ahokatzeko jostailuak eta puzzleak	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

1.3.Eraikuntza-jolasak	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

1.4.Motrizitate leuna						
a) Motrizitate leuna	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

b) Jarduera panelak	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

1.5.Garapen musikala	1.	1.	1.	1.	1.	1.

	2. 3. ...	2. 3. ...	2. 3. ...	2. 3. ...	2. 3. ...	2. 3. ...
1.6.Jolas sinbolikoa						
a) Jolas sinbolikoa	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
b) Panpinentzako osagarriak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
c) Jolas sinbolikorako osagarriak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
1.7.Mugimendu-jolasak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
1.8.Jolas-liburuak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2-MOTRIZITATE EKIPAMENDUA	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.1.Tatami koltxoneta 0-1	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.	1. 2. 3.

2.2.Tatami koltxoneta 1-2	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.3. Psikomotrizitate koltxoneta	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.4.Apar-gomazko aulkiak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.5.Psikomotrizitate elementu konbinatua	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.6.Aereoak eta txirristak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.7.Hesi finko eta mugikorak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...
2.8.Horma-barrak	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...	1. 2. 3. ...



Prezioen barruan sartuko dira zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak, baita prestazioak eragiten dituen gainerako gastu guztiak ere, edo baldintza-agiri honetan ezarritakoa betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren guztiak.

.....(e)n,
.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n

Sinadura:
NANa



VI. ERANSKINA
FITXA TEKNIKOAK AURKEZTEKO EREDUA

..... jaunak/andreak (NAN zenbakia:), bere izenean edo gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administrari bakar, ahaldun...), enpresaren ordezkaritzan (IFK:), produktuaren fitxa teknikoak aurkeztu ditu, beharrezko BETEKIZUN TEKNIKOAK egiaztatu eta 002/17 zenbakiko espedientean aplikatu beharreko eta nahitaez bete beharreko indarreko araudi guztia betetzen dela ziurtatzeko:

ESKAINITAKO PRODUKTU-MOTA

ARGAZKIA			
Produktuaren deskribapena			
Marka, modeloa eta erreferentzia:			
Dimentsioak:			
Materialen eta akaberen zerrenda			
ELEMENTUA (*)	MATERIALA	LODIERA	KOLOREA/ERREF.
Estalkia			
Ehuna			
Betegarria			
Fabrikatzailea:			
Banatzailea:			
Lizitatzailearen ustez baldintza-agirian zehaztutakoak baino hobeak diren			



ezaugarriak edo prestazio teknikoak eskaintzen dituzten alderdiak
Lizitatzailaren ustez baldintza-agirian zehaztutakoak baino hobek diren funtzionaltasun-prestazioak eskaintzen dituzten alderdiak

(*) Produktuak dituen elementuak bete



PRODUKTUA/BETEKIZUNA	ARAUA	ZEHAZTAPENA	ABAL-ZENBAKIA	ZIURTAGIRI-ZENBAKIA	LABORATEGIA	IGORPEN-DATA
PRODUKTU AMAITUA						
MATERIALAK						

Eta, jasota gera dadin, aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknika egiaztatze aldera, honako hau sinatu du
(e)n, 201....(e)ko.....aren(e)(a)n

Sin.:

Enpresaren zigilua



Eranskinak
eta ereduak

VII. ERANSKINA

JOSTAILUEN ZUZENTARAUARI JARRAIKIZ EE MARKA BETETZEN DELA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAGIRIA

..... jaunak/andreak (NAN
zenbakia:), bere izenean edo gisa (adierazi ordezkaritza-
ahalmenak: administrari bakar, ahaldu...),
..... enpresaren ordezkaritzan
(IFK:), 002/17 zenbakidun espedienterako jostailuen
zuzentarauari jarraikiz EE marka betetzen dela egiaztatze aldera, honako hau

ZIURTATZEN DU:

.....(*produktuaren izena*).....produktuak,(*produktuaren erreferentzia-
zenbakia*)..... erreferentzia duenak, EE adostasun-deklarazioa duela, jostailuen
zuzentarauari jarraikiz, 0 eta 2 urteko adin-tarterako, eta produktuak zuzentarau
horretan eskatzen diren funtsezko baldintzak betetzen dituela.

Gainera, berariaz bermatzen du EE adostasun-deklarazioa eskuratzeko egindako
frogak indarrean daudela baldintza-agiriak argitaratu diren datan, eta frogak
egitean jarraitu den arauaren bertsioak honako hauek direla:
.....(*bertsio-zk. + data*).

Eta, jasota gera dadin, aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen teknikoa
egiaztatze aldera, honako hau sinatu du

.....(e)n, 201....(e)ko.....aren(e)(a)n

Sin.:

Enpresaren zigilua



VIII. ERANSKINA

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HEZKUNTZA-PRINTZIOAK

- 1- Garapena prozesu pertsonala da, eta haur bakoitzaren ezaugarrien, egoeren eta inguruaren arabera ezberdina izaten da.
- 2- Denok gara ezberdinak. Haur bakoitzak bere erritmoa dauka, eta erritmo hori errespetatu egingo da.
- 3- Egunerokotasunean berdintasun-baldintzetan heziko dira haurrak, aurreiritzi eta estereotipo baztertzailleak kanpoan utzita.
- 4- Ez dugu dena era berean eta aldi berean geureganatzen. Garapen intelektualak, afektiboak eta sozialak eragina izango dute prozesu horretan. Haurraren garapena orokorra da, eta aipatutako alderdi guztien bidez eraikitzen da.
- 5- Haurrak mendetasun handia izan arren, gaitasunak dauzka eta aktiboa da.
- 6- Bizitzaren esperientziak eta esperientzia horien ondoriozko emozioak dira garapenaren oinarria, eta pertsonaren osotasunari eragiten diote: eremu afektiboari, harremanei eta ezagutzei.
- 7- Hazteko eta ikasteko behar-beharrezkoak ditugu onarpena, segurtasuna, konfiantza eta egonkortasuna.
- 8- Euskara izango da erabiliko den hizkuntza, baina beti onartu eta errespetatuko da haurraren eta bere familiaren hizkuntza.
- 9- Hezkuntzako langileen jarduera koherentea izango da, eta haurren ongizatea beti lehenetsiko da:
 - Hezkuntza-taldearen jarduera koherentea izan dadin, adostuta eta erabakita egongo da.
 - Hezkuntza-taldeak familiarekin hitz egiteko eta harremana izateko errespetuzko bideak eraikiko ditu.
- 10-Hezitzailearen papera funtsezkoa da. Hurrei begiratu eta entzunez, hezitzaileek haur bakoitzaren ezagutza sakonduko dute, bakoitzak inguru fisiko eta sozialarekin izan ditzakeen harremanak zainduta.
- 11-Hezkuntza-proposamenak irizpide psikopedagogikoetan oinarrituko dira.
- 12-Hezkuntza-proposamenek zaindu egingo dituzte bai haurrak ikertzeko, ezagutzeko eta ulertzeko duen beharrez, bai bere ekimen eta interesak.
- 13-Haurren garapen orokorra bermatzeko, mugimenduaren eremuan nahiz arlo intelektualean garatzeko, askatasunez mugitu, manipulatu eta esperimendatzeko, hezkuntza-proposamenak aberatsak eta egokiak izango dira.
- 14-Hezkuntza-proposamenak iraunkorrak, jarraituak, anitzak eta haur bakoitzaren garapen-unearentzako aproposak izango dira.